



EUSKADI, BERE BIKAINTRASUN ESPARRU PROPIOAN OINARRITUZ HEZKUNTZAREN ARLOAN EFQM AITORPENA EMATEKO AHALMENA DUEN LEHEN NAZIO EUROPARRA

- **Cristina Uriarte Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburua Léon Tossaint EFQM* –Kalitatearen Kudeaketarako Europako Fundazioa– erakundearen zuzendari nagusiarekin bildu da, gaur goizean, Bruselan.**
- **Eusko Jaurlaritzak EFQM aitortpena eman ahal izango die, bere kudeaketa-eredua erabiltzen duten Lanbide Heziketako ikastetxeei eta hezkuntza-sistemako gainerako ikastetxeei.**

Lehen aldiz, Europako gobernu batek, bere bikaintasun-esparru propioan oinarrituz, hezkuntzaren arloan EFQM aitortpena eman ahal izango du. Duela gutxi, eta Lanbide Heziketako Sailburuordetzak egindako eskaera baten ondoren, Kalitatearen Kudeaketarako Europako Fundazioak –EFQM– eskubide hori eman dio Eusko Jaurlaritzari.

Gaur goizean, Cristina Uriarte Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak, Marta Marin Eusko Jaurlaritzako Bruselako ordezkariarekin batera, Léon Tossaint EFQM erakundearen zuzendari nagusiarekin bildu da Belgikako hiriburuan. Bertan, bi agintariek, Euskadin garatutako kudeaketa, autoebaluazio eta hobekuntzako ereduaren gaitasuna aztertu dute, azkenean bere erabiltzaileei aitortpena egiteko ahalmena ematen dien ereduak.

EFQM fundazioaren arduradunekin egindako bileran, Euskal Autonomia Erkidegoan Lanbide Heziketak, kudeaketaren bikaintasuna lortzeko asmoz, azken 3 hamarkadetan egindako ibilbidea azaldu du sailburuak. Ibilbidea 90eko hamarkadaren amaiera aldera hasi zen, zerbitzuen kalitatea ziurtatzeko ISO 9001 arauan oinarritutako kudeaketa-sistema bat ezarriz. Aurrerago, EFQM ereduak hartu zuen kudeaketaren bikaintasun-erreferentzia gisa, esparru propioa lortzeko bidean aurrera egiten jarraitzeko.

Bilera horretan sailburuak azpimarratu du, ereduaren jabetza intelektuala Eusko Jaurlaritzak erabiltzeko EFQM fundazioarekin lortutako akordioak honako hau suposatzen duela: “autoebaluazioko tresnarako zein esparrurako EFQM-Hobbide EFQM dela aitortzea. Une horretan jakinarazi zitzaigun Europako hezkuntza-esparruan bakarrak ginela –eta hala izaten jarraitzen dugula–”. Europako Legebiltzarraren gomendioa betetzeko, Europako Komunitateko estatu bakar batek ere ez du EFQM bezalako izen handiko nazioarteko erreferente bat erabiltzea aukeratu.



Kudeaketa-ereduko euskal sistema

2006. urteaz geroztik, Eusko Jaurlaritzak irakaskuntzaren esparruan kudeatzeko, autoebaluatzeko eta hobetzeko bere eredu propioa garatzen eta egokitzen joan da. “EFQM-Hobbide” izeneko kudeaketa-eredu hori, hasieratik, EFQMan bildutako edukietan eta gomendioetan oinarritu zen, baina euskal gizartearen eta bere hezkuntza-sistemaren errealitatera egokituz.

Horrela, 2015. urtean, eta “Hobbide” kudeaketa-markoa aztertu ondoren, EFQM fundazioaren arduradunek honakoa adierazi zuten: eredu horrek betetzen dituela EFQM-k berak bere prozesuetan eskatzen eta zehazten dituen kalitateko eskaerak eta estandarrak.

Orain, aitorten hori osatu egin da. EFQM fundazioak ez du Euskadin egindako kudeaketa-eredua homologatzen bakarrik; horretaz gain, finkatutako eskakizun-mailak gainditzen dituzten ikastetxeei EFQM-Hobbide aitortenak emateko aukera eskaintzen dio Eusko Jaurlaritzari.

***EFQM – European Foundation for Quality Management**

EFQM egoitza Bruselan duen irabazi asmorik gabeko erakunde bat da. Kalitatea hobeto ebaluatzeko egitura metodologiko bat sustatzeko helburua dauka.

Europako Batzordearen babesarekin, Europako 14 konpainiak (Bosch, BT, Bull, Ciba-Geigy, Dassault, Electrolux, Fiat, KLM, Nestlé, Olivetti, Philips, Renault, Sulzer eta Volkswagen) 1988an sortua, Fundazioak funtsezko papera betetzen du erakunde europarren eraginkortasuna eta efizientzia handitzeko, eta hauen jardueren alderdi guztietan kalitate hobea eskaintzeko. Sortu zenetik, EFQM fundazioa erakunde europar sendoak sortzen laguntzera bideratu da, erakunde horiek, euren negozio-prozesuetan eta euren langileekin, bezeroekin, akziodunekin eta diharduten komunitateekin dituzten erlazioetan erabateko kalitatea administratzeko printzipioak gauzatzeko.

Bruselan, 2016ko azaroaren 21ean